

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

*Gure enpresaren funtsezko jarduera gure produktuaren inguruan dago orientatuta, gogo eta ideia guztiak hagen pertsonalizatueta jarri behar ditugu. Baina nahiz eta esfortzu guztia produktuarengan jarri, ez dugu jarduera guztia ekoizpenean jarri behar. Ekoizpen handi bat izatea oso ondo dago, baina gure jarduera nagusia akatsak identifikatu eta arazoak konpontzea izango da, ezin baita arazoak bere horretan utzi eta ekoizpenean esfortzua jartzea, logikoa, beharrezkoa da egindako arazoak konpondu, berrikuntzak aplikatu eta aurrera jarraitzea. Gure proiektua berritzailea denez, hemen lehenengo hagen pertsonalizatueta produzitzailea izango litzateke, eta beraz normala izango litzateke akatsak egitea eta arazoak edukitzea, beraz funtsezko jarduera izango da arazoei aurre egitea. Horrez gain, plataformako eta sareko jarduerari ere garrantzi handia emango diegu, kontuan hartu behar baita funtsezkoa izango dela gurtezat online plataforma eta sareko eguneroko jarduerak, hauen bidez salduko baitugu gure produktua. Beraz, konklusio moduan esan dezakegu, hiru jarduera horiei emango diegula garrantzi handiena, baino batez ere aipatutako azken bi jarduera horiei, izan ere azkenfinean guk eskaini nahi dugun alderdia kalitatea baita, ez kantitatea baizik.*

*Enpresa berria izango denez, eta oraindik esperientzia falta handia izango dugunez, beharrezkoa izango da funtsezko jardueretan lan handia egitea.*

